

euskararen berripapera

210



Euskara 2.0 ikastaroa. Gizarte sareetan tokia egiten

Euskal Herriko Unibertsitateak, Udako Ikastaroen barruan, "Euskara 2.0" deritzon ikastaroa antolatu zuen uztailan, Donostian, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lankidetzarekin.



XVII Cursos de Verano
Uda Ikastaroak
XVII Cursos Europeos
Europar Ikastaroak

Mundu globalizatuan, harreman sareak muga guztiak gainditzen ari dira, eta zer esanik ez, unibertso birtualean, alegia, teknologia berriek eta 2.0 kontzeptuak begietara ekarri diguten mundu berrian. Harreman birtualek beren jokabide-arauak dituzte, eta, hizkuntza guztiak bezala, eremu urriko hizkuntzek ere, arau horiek ezagutu eta bereganatu behar dituzte. Eleaniztasuna ohikoa den esparru birtualean, eremu urriko hizkuntzek euren lekua aurkitu behar dute.

Blanca Urgell Kultura sailburuak ikastaroaren irekiera ekitaldian adierazi zuenez, euskarak zein hiztun-kopuru txikia duten hizkuntzek egungo gizarte sarearen zirrikiturik txikienak ere aukera bihurtu behar dituzte. Urgellen ustez, euskara bezalako eremu urriko hizkuntzek teknologia berrien munduan beren tokia izan behar dute, «globalizazioak ez baitu, hasiera batean pentsa zitekeenaren aurka, partikularitasuna baztertzen edo zokoratzen».

Helburuak

Honako hauek izan dira ikastaroaren helburuak: Europar Batasuneko eremu urriko hizkuntzen baitan, teknologiak, berrikuntzak eta globalizazioak dakarten aldaketa ulertzea; euskararen erabilera sustatzeko, ikerketan, teknologian eta enpresetan estrategia berriak identifikatzea; eremu urriko hizkuntza-komunitatea edozein izanda ere, praktika berritzaile eta teknologiko baliagarriak jasotzea, eta eguneroko bizimoduan euskara teknologia berrien ildotik garatzeko estrategiak finkatzea.

Ikastaroan honako hizlari hauek izan ziren: Jeremy Evas, galesa; Luis Ángel Fernández Hermana, katalana; eta bertakoak diren Maite Goñi, Gorka Julio eta Unai Fernández de Betoño.

Ondorioak

Iván Igartua Koordinaziorako zuzendariarekin batera, ikastaroaren zuzendaria eta lametza Interaktiboan enpre-

sako kudeatzailea den Eli Pombok honela laburtu zituen jardunaldietan azpimarratu ziren gaiak:

- **Edukiak euskaraz sortu behar dira, berriak edo itzulpenak.** Horrela euskararen erabilera lortzen da, eta, ondo ala gaizki ari garen beldurra uxatuz, euskaraz aritu egin behar da. Erabileraz gain, eduki-kopurua ere garrantzitsua da. Itzulpen memoriatarako euskarazko corpusa gizentzeak duen inportantzia azpimarratu zen.
- **Kultura libreia sustatu behar da.** Baliabideak behar ditugu eta software libreak eta lizentzia libreak baliabideak azkar eta ugari ekoizteko aukera ematen digute. Edukiak zein baliabideak partekatu behar dira.
- **Hezkuntzan eragitea.** Haurrak ohitu egin behar dira hainbat software erabiltzen, gauzak partekatzen...
- **EUS domeinua lortzea.**
- **Marketin gehiago.** Erreferentzialtasuna lortzeko, egindakoa saltzen ikasi behar dugu.
- **Ekimen txikiekin emaitza handiak lortzen dira.** Pombok Maite Goñi hizlariak proposatutakoa gogorarazi zuen: Eusko Jaurlaritzak Google-rekin harremanetan jarri eta bilatzaileari eskatzea euskara hizkuntza bezala onar dezala.
- **Sare sozialak erabiltzea.** Esparru guztietan erabil daitezke sare sozialak, hala nola, lan eremuan eta aisialdian. Erabilera horrek konektatuta egotea ahalbidetzen digu, jende berria ezagutzea, harremanak garatzea...
- **Militantzia sustatu behar da.** Orain arteko puntu horiek guztiak aurrera aterako badira, eragileak behar dira, hots, militanteak ●

Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretuaren aldaketa

Eusko Jaurlaritzak 2008ko uztailean onartu zuen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko 123/2008 Dekretua. Kontsumitzaile eta erabiltzaileek dituzten hizkuntza-eskubideak berma daitezten, enpresek, erakundeek eta establezimenduek dituzten betebeharrak eta horiek burutzeko epeak jasotzen ditu Dekretuak. Ezarritakoa ez betetzearen ondorioz jarri beharreko zehapenak ere zehazten dira.

Dekretuaren aplikazio-eremua den Euskal Autonomia Erkidegoaren gaur egungo egoera soziolinguistikoa aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak Dekretua moldatu egin du eta bertan jasotako hizkuntza-eginbeharrak betetzeko epea urtebete luzatu da.

Eroski kooperatibak eta IKEA enpresak honako galdera hauek erantzun dituzte:

- 1)** Dekretua indarrean jarri zenez geroztik enpresek eta establezimenduek egoera berrira egokitzeko aukera izan dute. Gertu zaudete egoera berriari erantzuteko?
- 2)** Zuen ustez, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatze aldera Dekretuak ezarritako neurrietara egokitzeko Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzak baliagarriak izan dira?
- 3)** Eusko Legebiltzarrak eskatuta, Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza-eskubideei buruzko Dekretua moldatzea onartu du, bertan ezarritakoa (zehapenak, zigorrak...) urtebetez atzeratzeko asmoz. Zer iruditzen zaizue neurri hori hartu izana?



1) Eroski kooperatibaren estatutuetan jasotzen den bezala, euskara hizkuntza koofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean. Beraz, gure kooperatibak, gaztelaniarekin batera, euskara bultzatu eta erabili behar du eguneroko jardueretan. Hori hala izanik, euskararen presentzia saltokietan-eta bermatzeko lanetan jardun izan dugu urte askoan.

Beraz, gure kooperatiban, Dekretua heldu baino lehen, euskararen erabilera bultzatzeko saioak egiten genituen. Jakina, oraindik hobekuntzak egin beharoko ditugu (hori bizitzan eta enpresa munduan ohikoa da), eta horretan ari gara, buru-belarri. Zailtasunak izan arren, lana, dagoeneko, fruituak ematen ari da. Pozik gaude egindakoarekin eta baikor etorkizunarekin.

2) Aurrekontuetan, urtero, euskara bultzatzeko eta normalizatzeko diru-kopuru zehatzak aurreikusten ditugu. Dena den, aurrekontu propioez gain, zenbait erakunde publikok ematen dituzten diru-laguntzak ere erabiltzen ditugu. Lagungarriak dira; are gehiago, krisi garaian.

Edonola ere, diru-laguntza horiek desagertuko balira ere, gure kasuan, urtero-urtero, euskara lantzeko dirua aurreikusten jarraituko genuke.

3) Gure kooperatiban, Eusko Jaurlaritzak uneoro hartzen dituen erabakiak (Eusko Jaurlaritzarenak ez ezik, edozein erakunde publikotatik datozenak ere) errespetatzen ditugu eta ontzat hartzen ditugu. Azken finean, gizartearen eta enpresa guztien onerako izango baitira.

1) Ahalik eta pertsona gehienengana hurbiltzeko egiten dugu lan IKEAn, eta horretarako, ahal den neurrian, pertsona horien beharretara zein ohitura, gustu, eta jakina, hizkuntzetara egokitzen gara.

Horregatik, IKEA Euskal Herrira iritsi zenetik norabide horretan lan egin dugu, gure egunerokotasunean euskararen ezarpena bermatzeko helburuarekin. Horren adibide dira gure saltokietako komunikazio elebiduna eta IKEAren katalogoa euskaraz ere kaleratzea. Katalogo hori da enpresak bere bezeroekiko komunikaziorako duen tresna nagusia. IKEAren katalogoa euskaraz eskuragarri dago Barakaldoko IKEAn eta Internetez ere kontsulta daiteke www.ikea.es webgunean. Hala, Eusko Jaurlaritzak aipamen bereziarekin saritu zuen IKEA, 2008ko UKAN sarietan. Halaber, katalogoaren hurrengo edizioari begira, euskal hitzunei katalogoa eskuratzeko bideak erraztu nahi dizkiegu, ale gehigo inprimatuz.

Hainbat arlotan zailtasunak ditugula aitortu behar dugu, bereziki itzulpen-zerbitzuekin zerikusia dutenetan. Bestalde, zaila da profil egokiak dituzten eta gure bezeroen aldetik hizkuntza ulertzeko benetako maila duten langileak topatzea.

2) Bistan denez, oso neurri positiboa da, eta enpresa askori, horien artean IKEAri, araudira egokitzeak eragiten duen inbertsioari hobeto aurre egiteko aukera emango die.

3) Prozesua moteltzea eta enpresei araudi berrira pixkanaka egokitzeko astia ematea zentzuzkoa dela uste dugu, betiere eskariaren bilakaera eta euskarak gure gizartearen duen garrantzia kontuan hartuta ●

174/2010 Dekretua: Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalkuntza



Dekretuaren xedea EAeko Justizia Administrazioako hizkuntza-normalkuntzarako prozesua arautzea da, hizkuntzen koofizialtasuna gauzatu dadin.

Dekretua euskararen erabilera normalizatzeko plan batek osatuko du. Plangintzaldia 10 urtean gauzatu da, 5 urteko epealditan banatuta.

Hizkuntza-normalkuntza pixkanaka-pixkanaka eta arian-arian eramango da aurrera, langileen trebakuntzak eta errealitate soziolinguistikoak sortutako beharra aintzat hartuz. Intentsitatea organoen edota esparruen lehenetasun mailaren arabera izango da.

EAeko Justizia Administrazioako kidego hauetako langileak izango dira eraginpekoak: Kudeaketa Prozesal eta Administrazioa, Izapidetze Prozesal eta Administrazioa, Laguntza Judiziala, Auzitegiko Medikua eta Laborategiko Laguntzaileak.

Euskara: eskakizuna edo meritua

Euskara jakitea eskatu ahal izango da lanpostu jakin batzuetan (bereizitutako lanpostuetan). Gainerako lanpostuetan (lanpostu orokorretan), meritua gisa baloratuko da.

Euskara jakitea baldintzatzen duten lanpostuei dagokienez, Justizia Administrazioako Lanpostuen Zerrendan jasoko da euren izaera berezi hori.

Lanpostuak bereizteko modu bi daude: bereizteko data bete jarritz (Lanpostu Zerrenda argitaratzeko uneko) edo data gerotua jarritz (hots, plangintzaldiko bi epealdietako amaiera datetarik edozein jarritz). Bereizteko data heltzean, izaera berezia hartzen du lanpostuak, eta lanpostuaren titularrak kidegoari dagokion hizkuntza-eskakizuna (HE) egiaztatuta eduki behar du. Hala ere, data gerotua betetzat joko da lanpostuaren titularrak ezarritako data baino lehenago egiaztatzen badu.

Lehenetasunak

Herritarrekiko zuzeneko harremanaren maila funtsezkoa da lehenetasunak ezartzerakoan. Hartara, lehenetasuneko joko dira herritarrei informazioa emateko unitateak, bake-epaitegiak zein erregistro zibilak, baita egoitza judizialek kanpo jardutea eskatzen duten komunikazio- eta betearazpen-egintzen zerbitzuak ere.

Horretaz gain, bereizitutako lanpostuen egokitasuna eta proportzionaltasuna baloratu behar dira, mugape judizialaren lurraldean euskarak benetan duen ezar-

pena kontuan hartuta, horretarako, 86/1997 Dekretuaren 11. artikulua indize soziolinguistikoa aintzat harturik.

Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak

Euskara edozein jardun judizialean erabili ahal izango da, baita edozein organo judizialen eta Justizia Administrazioako organoen aurrean aurkezten diren agiri guztietan ere, eta erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna izango du.

Ahozko komunikazioan, hartzaile jakinik gabeko ahosko mezuak euskaraz eta gaztelaniaz zabalduko dira, hurrenkera horri jarraituz. Euskara-ezagupenak dituzten langileek euskaraz hartuko dituzte herritarrek, eta erabiltzaileek aukeratzen duten hizkuntzan jarraituko dute. Herritarrek funtzionarioari arreta euskaraz eskatzen diotenean, funtzionarioak, euskaraz behar adina ez badaki, langile elebidunen laguntza eskatuko du.

Idatzizko komunikazioan, ahalbidetu eta sustatuko da herritarrei bidali beharreko jakinarazpenak eta zitzioak euskaraz eta gaztelaniaz idatzita egongo direla.

Lehenetasuneko organo eta zerbitzuetan euskara zerbitzu-hizkuntza nahiz lan-hizkuntza gisa erabili dadin sustatuko da.

Langileen hizkuntza gaikuntza

Langileei hizkuntza-prestakuntza emateko neurri egokiak hartuko dira. Ikastaroetarako baimena hizkuntza-prestakuntzako banakako plan bati lotuta egongo da. Plan horretan, prestakuntza-egutegi zehatza jasoko da, langileak dagokion HE eskura dezan prestatzeko. Gehienez, 5 urteko iraupena izango du, prozesuaren jarraipena ikastaroen aprobetxamenduaren mende egonik.

Ikasteko lehenetasuna izango dute lanpostua lehenetasuneko organo eta zerbitzuetan edota euskararen ezagutza handiagoa duten mugape judizialean duten langileek.

Euskararen erabilera sustatzea

Euskararen erabilera sustatzeko programak progresiboki bultzatuko dira lehenetasuneko organo eta zerbitzu judizialean, baita programa horiek bideratzeko eta garatzeko baldintza egokiak dituzten bestelako ataletan ere.

Programa horien helburua hau da: eskatutako euskara-maila duten funtzionarioek bulegoko eguneroko lana euskaraz egin ahal izatea. Horretarako, Itzulpen Zerbitzuaren eta hizkuntza-normalkuntzarako talde teknikoaren laguntza izango dute, eta eskura izango dituzte agiri normalizatuen eredu informatizatuak, informatika-arloko laguntza, euskara-ikastaro osagarriak eta euskarazko terminoen glosarioa ●



Itzulpen zehatzak behar ditugu, euskaratik beste hizkuntzera eta alderantziz, batez ere, lege-, administrazio- eta ekonomia-arloetako testu eta jardueretan. Horretarako, **zinpeko itzultzaile eta interpreteen lanbide habilitazioari** buruzko apirilaren 21eko 88/2009 Dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Bertan aurreikusitakoaren arabera, habilitazioa eskuratzeko deialdia egin da (ekainaren 28ko EHAA, 122/2010 zenb.). Helburua, batetik, gaitzua profesionala arautzea da (bai euskaratik beste hizkuntzarako, bai beste hizkuntzetatik euskararako itzulpen eta interpretazio lanetan jarduteko), eta, bestetik, lanbide honetarako gaituta daudenen erregistroa osatzea.

Habilitazioa lortzeko, bi bide daude:

1) Zuzenean edo meritu bidez:

- Zuzenean lortzeko, bi aukera daude: Interpretazio eta Itzulpengintzako unibertsitate-ikasketak eginda, deialdia arautzen duen Ebazpenaren 2. artikuluan adierazitako baldintzetan; edo Espainiako Atzerri Araoetako Ministerioaren tituluaren jabe izanda.
- Meritu bidez lortzeko, lege-, administrazio- eta ekonomia-arloetako itzulpen eta interpretazio-lanetan esperientzia profesional zehatza edukita.

2) Probak gainditzea. Horretarako deialdia irailerako aurreikusi da ●



Network to Promote Linguistic Diversity — NPLD — www.npld.eu (Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Sarea) Europako sareak azken bilerak Edinburghen egin zituen ekainaren 21etik 23ra. Zuzendaritza Batzordea (Steering Committee) bildu zen eta, horretaz gain, kide guztien batzar nagusia (General Assembly) egin zuen sareak.

Batzar nagusia urtean behin egiten da eta, aurrean, besteak beste, NPLDko presidenteorde bat aukeratzea zegoen aztergaien artean. Bada, **Araceli Díaz de Lezana** aukeratu zuten, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Plangintzako arduraduna. Kargua bi urterako izango da. Sareko karguak presidentea eta bi presidenteorde dira ●



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) **lankidetzahitzarmenak** izenpetu ditu Bertsozale Elkartearekin, Labayru Ikastegiarekin eta EIZIEekin (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarteak).

Bertsozale Elkarteak. HPSk eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak sinatutako lankidetzahitzarmenaren zehaztu diren alorretako lan-ildoak bideratzeko 141.700 euroko diru-laguntza izango du elkarteak.

Labayru Ikastegia. Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Labayru Ikastegiak 2008-2011 aldiari dagokion esparru-hitzarmena izenpetu zuten. Hitzarmenaren finkatzen diren eginkizunetarako 163.400 euroko laguntza jasoko du Labayruk.

EIZIE. HPSk eta EIZIEk sinatutako lankidetzahitzarmenaren arabera, besteak beste, *Literatura Unibertsala* itzulpen-bildumaren sustapena eta berrargitalpen-plana egitea aurreikusten da. Kultura Sailak 115.000 euroko diru-laguntza emango dio EIZIEri, hitzarmeneko eginkizunak gauzatzeko ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

Euskararen Berripapera doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

- Paperezkoa jasotzeko: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 69 44 • berripapera@ej-gv.es

- Bertsi digitala jasotzeko egin harpidetza www.euskara.euskadi.net/berripapera helbidean.

